



IKASTETXEA	AIXERROTA BHI	KODEA	015109
Arloa/ Irakasgaia	ERLIJIOA	Zikloa / Maila	1. BATX
Irakasleak	IZASKUN ZEBERIO	Ikasturtea	2015~16

HELBURUAK	EBALUAZIO - IRIZPIDEAK
<ol style="list-style-type: none">1. Bizitzaren zentzuari buruzko galderak identifikatu eta gure zorientasunerako duten garrantzia baloratu.2. Bizitzaren zentzuari eman zaizkien erantzunak ezagutu eta antolatu.3. Erlijioak eta zehazki kristau erlijioa, bizitzaren zentzuaren erantzun bezala kokatu.4. Gure gizarteak dituen arazoak ohartu, gertaerak aztertu, arrazoak ikertu eta Elizak ematen dituen erantzunak ezagutu..5. Elizaren giza doktrinaren sustraiak, baloreak eta izandako aldaketak aztertu, ikuspegi antolatu eta orokor bat izan ahal izateko.6. Munduan, askotan, giza harremanak pertsonaren duinatasunaren kontra joaten direla ohartu eta konpromisuren bat hartu, hori aldatzeko.7. Bizitza pertsonalean zein oinarritzko gai jokuan dauden ezagutu eta gure zorientasunerako eta harreman pertsonalerako zein garrantzia duten jakitea.8. Norberaren bizitzaren proiektua zein garrantzitsua den ezagutu, gure bizitza zuzentzeko eta kristautasunak eskeintzen duen bizi-proiektua baloratu.9. Pertsona izatea zer den ulertu, giza esperientzian dauden bi arlo ezagutzuz:	<ol style="list-style-type: none">1. Bizitzaren zentzuaren aurrean eman diren erantzunak deskribatu eta eman diren erantzun desberdin horiek aurkitu gaur eguneko jarrera zehatz batzuetan.2. XIX. eta XX. mendeko pentsalari garrantzitsuenak bizitzaren zentzuaren aurrean eman dituzten erantzunak ezagutu.3. Erlijio fenomenoak bizitzaren zentzuaren erantzun bat bezala kokatu.4. Erlijio desberdinen artean, Kristau erlijioak dituen berezitasunaz ohartu eta kristau fedea duten pertsonetan, zelako ondorioetara eramaten duen ikustea.5. Jainkoan, Kristo pertsonaren bitartez, gizaki batzuek bere bizitzaren zentzua aurkitu dutela detektatu.6. Errealitatea aztertu eta behatu, ingurumeko errealitate politiko, ekonomiko deskribatuz, dauden arazoak aurkituz eta Elizako Giza Doktrinatik kritikatu ahal izateko.7. Gizartean dauden bidegabekeriak behatu eta kristau moral erizpidetik, zelan aldatu beharko ziren egitura horiek mundu hobe bat izateko.8. Gaur eguneko giza errealitate ekonomiko, eta politiko gaiei buruzko debateak egin, norberaren iritziak defendatzeko eta besteen iritziak entzuteko eta konparatzeko.9. Moral ekintzaren funtzionamendua ezagutu, ulermen eskema bat eginez.



barnekotasuna eta besteekiko eta munduarekiko harremanak.	10. Giza existentziaren dimentsioan, kristau fedeak izan ahal duen eragina aztertu.
10. Mendebalde kulturako kristau konposizio artistiko garrantzitsuenak ezagutu eta artistiko eta erlijiosu sentikortasuna bilakatu.	11. Jesusen bizitza aztertuz, kristau moralaren balore nagusiak eraiki.
11. Artean erlijiosu mezuak detektatu eta erlijioa aurkezteko modu desberdinak interpretatu.	12. Debateetan partehartu, norberaren iritziak, besteek dituztenarekin konparatuz eta katoliko moralak dituen iritziekin ere.
12. Kristau arteak gure ondare kulturean izan duen garrantzia baloratu.	13. Artistiko lanak behatuz eta aztertuz, arteak duen dimentsio espiritualak aurkitu.
.	14. Artistiko lanetan, erlijiosu kontzeptio desberdinak aurki ditzakegula aztertu.

EDUKIEN SEKUENTZIA

(denbora –tarteka; unitate didaktikoa, proiektua; ikaskuntza-nukleoa edo beste moduren batera antolatuta)

LEHENENGO HIRUHILABETEAN

1. Eduki multzoa: Bizitzaren zentzuaren arazoa eta egon diren erantzun desberdinak.

EDUKIAK

KRISTAU ANTROPOLOGIA

- Gizakia, izaki erlijiosua da bere bizitzari zentzua bilatzen duena.
- Erlijiosu zentzuaren adierazpen historikoak.
- Gizakiaren misterioa. Bere duintasunaren oinarria.
- Erlijio fenomenoaren aurrean ematen diren jarrerak gure gizartean.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Gizakiak bizitzaren zentzua aurkitzeko beharra duela antzeman eta errespetatu.
2. Adierazpen historikoak konparatu, ikusteko betidanik gizakiak erlijiosu fenomenoak izan duela.
3. Giza duintasunaren jainkotiar sustraiak arrazoitu.
4. Gaur eguneko bizitza zentzuaren erantzun desberdinak ezagutu eta konparatu.



EBALUATZEKO IKASTEKO ESTANDARRAK

- 1.1. Komunikazio baliabideetan agertutako ekintzak aztertu eta zentzua aurkitzearen beharra baloratu.
- 2.1 Erlijio desberdinak ematen dituzten salbazio erantzunak aztertu eta konparatu.
- 3.1 Legeak giza duintasuna ezin duela oinarritu, konturatu injustizia ematen diren ekintzetan. Erlijioetsu textuekin konparatu ikusteko giza duintasuna kreaturaren ondorioz datorrela.
- 3.2 Gazteen jarrerak ikertu eta aztertu giza duintasunaren alde edo kontrari dauzenak, ondorioak ateraz.
- 4.1 Ateismoa, agnostizismoa eta laizismoak bizitzaren zentzuari ematen dizkioten erantzunak baloratu eta erlijioek emandako salbazio erantzunekin konparatu.

BIGARREN HIRUHILABETEAN

2.- Eduki multzoa: Errealitatea aztertu, ezagutzeko zein arrazoiak dauden horrela egoteko eta zein bide egon ahal diren errealitate hori aldatzeko.

EDUKIAK

ELIZAREN GIZA DOKTRINA

- Elizaren giza doktrina: jatorria eta bere bilakaera.
- Elizaren giza doktrinaren oinarriak.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Elizaren giza doktrinaren irakaspena zein testuinguruan sortzen den ezagutu eta baloratu.
2. Gizakiaren arteko elkarbizitza justuan duintasunak duen garrantzia ezagutu eta desberdindu Estatuak legeen bidez egiten dituen onarpenak.
3. Elizaren giza doktrinaren oinarriak ezagutu eta testuinguru desberdinetara aplikatu.

EBALUATZEKO IKASTEKO ESTANDARRAK

- 1.1 XIX. mendearen azkeneko giza arazoak aztertu, gaur egunerarteko aldaketak ikusi eta Elizaren giza doktrinaren erantzunak aztertu.
- 2.1 Definizio pertsonal bat eman hurrengo kontzeptuen gainean: legala, etikoa eta morala. Ikusentzunezko baliabideekin termino horiek desberdindu.
- 3.1 Modu pertsonalean definitu hurrengo kontzeptuak: "**guztien on**", "**guztientzako ondasunak**", "**ordezkatzaille**". Kontzeptua hauek egoera zehatzetan aplikatu, Elizaren giza pentsamendua justifikatuz.



HIRUGARREN HIRUHILABETEAN

3.- Eduki multzoa: Gaur eguneko arazoak eta beraien kristau ikuspuntua.**EDUKIAK****ZIENTZIA, FEDEA ETA ARRAZOIAREN ARTEKO HARREMANAK**

- Historian zehar, gizakiak, errealitatea eta egia ezagutzeko, erabili dituen ezagupen moduak.
- Zientzia eta fedearen arteko harremanak, historian zehar.
- Zientzia eta etikaren arteko lotura.

ELIZA KULTURAREN SORTZAILEA HISTORIAREN ZEHAR

- Kulturaren esanahia eta bere dimentsioak.
Monjeen bizitza, kulturaren iturria

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Gizakiak, egia ezagutzeko, erabili dituen metodoak ezagutu eta bereiztu.
2. Historian zehar, eman diren zientzia eta fedearen arteko gatazkak ezagutu eta Elizaren jarrera ulertu.
3. Zientzia eta etikaren arteko loturaz ohartu, benetako giza bilakaera egon ahal izateko.
4. Kultura hitzaren esanahi desberdinak ezagutu eta konparatu.
5. Gizakiak kultura sortzen duela konturatu.
6. Monjeek, denbora eta lanaren itxuran, duten eraginaz ohartu.

EBALUATZEKO IKASTEKO ESTANDARRAK

- 1.1. Egia ezagutzeko, **filosofiak, teologiak, zientziak eta teknikak** erabiltzen dituzten metodoak identifikatu eta metodo bakoitzari esker zein errealitate aldea ezagutu ahal dugun.
- 2.1 Munduaren jatorria Jainkoarengandik datorrela saiatu ulertzen.
- 2.2. Galileo, Servet eta abarren kasuak sakonki ezagutu eta errespetuz eztabaidatu. Ikasleak bere iritzia ematen du zergatiak eta ondorioak arrazoituz
- 3.1. Etikaren irizpidea, gizakiaren duintasuna onartuz sortzen dela ohartu.
- 3.2. Zientzia, etika erreferentzi gabe aplikatzen denean, zelako ondorioak dituen aztertu, kasuak ikertuz eta arrazoituz eztabaidatu.
- 4.1.. Historian zehar kulturaren kontzeptua aztertu eta definitu eta Elizaren antropologiko ikuspegiarekin konparatu.
- 5.1 Kultura desberdinetako elementuak ezagutu eta kritikoki konparatu ikusentzunezko material bat sortuz.
- 6.1 Monjeen bizitza ezagutu eta errespetatu eta bizitza horrek zelako eragina izan duen giza antolaketan eta lanean ohartu.
- 6.2 Monjeek grekolatindar kultura eta artea mantentzeko egin duten lana baloratu eta ikusentzunezko material baten bidez laburtu.



METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

Erljio eta Moral katolikoaren kurrikuluma, kristau mezuaren laburpena da, ikasleen adinera egokitzen dena, baita behar kultural eta hezkuntza eskakizunetara.

Erljiotsu fenomenoaren ikuspuntu desberdinetatik aztertzen du:

- ✓ Historiko eta kultural dimentsiotik: Historia eta kultural ondarea erljiotsu zentzuz beterik dago eta hori aztertuz hobeto ulertuko dugu gaur eguneko mundua.
- ✓ Gizatiartze dimentsiotik: Erljio Katolikoak pertsona bere osotasunean bilakatzen laguntzen du, azkenengo galdereei erantzunak emanez eta trszendenterantz zabalduz.
- ✓ Moral eta etiko dimentsiotik: Erljio Katolikoak bizitza ulertzeko modu bat eskeintzen du eta koherentziaz jokatzeko modu bat ideia, balore, sineste eta printzipio batzuei jarraituz.

Beraz, lehenengo metodologiko erizpidea, ikaslearen errealitateak hastea izango da.

Hurrengo puntuetan oinarrituko da:

- Ikasleek gai zehatz bati buruz zer dakiten hastea.
- Ikasleen behar eta interesetik konektatzea.
- Ikasleei proposatu zeintzuk izango diren ikasketa berrien helburuak motibatuta egoteko.
- Heziketa intentzio eta ikasgelan egiten diren ariketen artean koherentzia egotea.
- Ikasketak errealitateari aplikatzea. Horretarako beharrezkoa izango da erabiltzen den hizkuntza ikasleentzat ulergarria eta hurbila izatea. Erljio Katolikoaren eta beste erljioren hiztegia ulertu ahal zateko.

Bigarren metodologiko erizpidea kritikoa izango dela da: ikasleak hurrengo hau lortzea nahi dugu:

- Erljio fenomenoaren baloratzea eta gizaki guztien duintasun sagaratuaren errespetatzea.
- Erljioak historikoki zelako eragina duen eta kultura eta gizakiaren zati garrantzitsu bat den ikustea.
- Oinarritzko balore eta erizpide batzuk lortzea norberaren historia eta mundua interpretatzeko eta bereganatzeko.
- Munduaren ikuspegi armoiotso bat lortzea, gure gizartean gero eta zoriontsuago, askeago eta arduratsuago izateko.

Beste metodologiko erizpidea pluralitatea da: ikasten dugunean gure ezagutzeko eskemak aldatzen eta aberasten ditugu, errealitatea hobeto ulertzeko eta aldatu ahal izateko.

- * Baliabide desberdinak erabili: debateak, erakusketak... esperientzi desberdinak lortzeko eta erljiotsu edukin desberdinak izateko eta



gizartean aukera desberdinak dauzela konturatzeko eta errespetatzeko.

Laugarren metodologiko erizpidea disziplina arteko ikasgaia dela konturatzea da.

- Ezin da izan ikasgai aparteko bat; beti egongo da beste ikasgaien artean lotuta. Gure kulturarekin topo egin behar dugu beste ikasgaiak esaten digutena kontutan hartuz. Batez ere, ikasleei koherentzia ematen dieten arloekin.

ERABILIKO DIREN TRESNAK ETA BALIABIDEAK.

1. Irakaslearen azalpenak.
2. Departamentuaren karpeta errekurtsuak.
aldizkariak, egunkariak...
3. Pelikulak eta dokumentalak.
4. Informatika gelako internetak.
5. Informatika programak: Blogs. Wikis. Web 2.0
6. Power pointen aurkezpenak.
7. Ikusiz-Ikasi egitarauan parte-hartu pelikula bat ikusiz. Oraindik ez dakigu noiz egingo duten.

EBALUAZIO TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]
<p>Ebaluazio jarraia denez, irakasle ekintza guztietan egin behar da. Erljio arloan ebaluazio jarraia modu honetan ulertzen da:</p> <p>* Unitate didaktiko bakoitzean agertzen diren hasierako ariketek balio izango dute ikasleen diagnostikoa egiteko.</p> <p>* Sakontze ariketek, ariketa desberdinak izango dituzte, irakasle ekintza hobetzeko, behaketa eta gogoeta eginez (formakuntza ebaluaketa).</p> <p>Argitu behar dugu irakaslearen fedea ez dela ebaluatzen, pertsonal kontzientziaren intimitatea errespetatu behar du ebaluaketak eta erlijio irakaskuntzaren alderdi batzuk bakarrik ebaluatu:</p> <p>a) Gelako elkarrizketetan hurrengo puntuak</p>	<p>Irakaslearen nota jartzeko hurrengo puntuak kontutan hartuko dira:</p> <p>1. KLASE- ETORTZEA Derrigorrezkoa beste guztia kontutan hartzeko.</p> <p>2 GELAN PARTEHARTZEA Galderak egin, erantzunak eman, argitasunak eskatu, iradokizunak eman (irakasle zein ikasleei). kontutan hartuz:</p> <p>1)-<u>KLASEKO JARRERA</u>: Irakasleak klasean egunero duen jarrera behaketa-koadro baten apuntatuko da, hurrengo puntuak kontutan hartuz:</p> <p>a).1.-<u>Asistentzia</u>:- Klasera etortzea derrigorrezkoa da. Ebaluaketa bakoitzean 3 falta justifikatu gabe izanik</p>



baloratuko dira:

* **Informazioaren erabilera eta landuera.**

* **Ikasleen zentzu kritikoa eta sortzailea.**

d) Jarreraren aldetik, ikaslea apurka-apurka joango da balore batzuk jasotzen, errespetuzko elkarbizitzarako eta jarrera solidarioa eta kritikoa agertzeko.

Beraz, ebaluazio prozedurak eta baliabideak hurrengo hauek izango dira:

a.- Ikasgelan egindako ahozko ariketak dokumentalak eta pelikulak ikusi eta gero.

b.- Ikaslearen behaketa (atenzioa, partehartzea, jarrera...).

e.- Gaiaren ulermena eta adierazpena.

f.- Informazioaren azterketa, laburpena, interpretazioa eta erabilera.

g.- Ardura, ahaleginak, errespetua, partehartzea, tolerantzia eta sormena.

suspenditzen da gaia. Falta larria egiteagatik baten bat kaleratua izanez gero, falta horrek zenbatuko du notan ere, justifikatu gabeko falta moduan.

a).2.- **Errespetoa**: Ikaskideko begirunea (ez iraindu, banan-banan hitz egin...), materialarekiko begirunea (Ez apurtu ezer, ez zikindu, ez bota gauzak,...) irakaslearekiko begirunea.

a).4.- **Adi egon eta partehartu ahal den guztia.**

a). 5.- **Interesa.**

a). 6.- **Klaseak ez moztu.**

Puntu guzti hauek egunero aztertuko dira eta koadroan apuntatuko dira positiboak eta negatiboak,

Kenketak eta batuketak egin eta gero :

- **ebaluaketa bakoitzean 10 negatibo pilatzen badira suspenditzen da gaia.**

- **9 negatibotik 3 negatibora** ateratzen dutenek **5 bat** izango dute jarreran.

- **2 negatibotik 0 negatibora** ateratzen dutenek **6 bat** izango dute jarreran.

- **Positibo 1 edo 2** ateratzen dutenek **7 bat** izango dute jarreran.

- **3 edo 4 positibo** ateratzen dutenek **8 bat** izango dute jarreran.

- **5, 6 edo 7 positibo** ateratzen dutenek **9 bat** izango dute jarreran.

- **8 positibo edo gehiago** ateratzen dutenek **10 bat** izango dute jarreran.



	<ul style="list-style-type: none">- Baten batek nahiago badu idatzizko gogoeta egin, ahozkoa baino; hori da baloratuko zaiona.- Ez dira, orokorrean, etxerako lanak bidaliko. Baina baten batek klasean ez badu egin edo amaitu klasean egin behar zena, etxean bukatu beharko du.- Saiatuko gara debateak antolatzen positiboak irabazi ahal izateko (partehartzen duenak eta besteen eritziak errespetatzen duenak).
--	---

ZUZENKETA ERIZPIDEAK

Lanak zuzentzean:

- Lanak dituen galdera guztiei erantzutea eta irakasleak agindutako egitura mantentzea; adibidez, portada, aurkibidea, bibliografía....
- Informazio iturri desberdinak erabiltzea lan bakoitzean.
- Berezko hizkuntza erabiltzea.
- Ondorio batzuetara heltzea. Gogoeta pertsonala egitea.
- Ordena eta garbitasuna mantentzea.

Koadernoan zuzentzean

- Gelan emandako material guztia koadernoan izatea.
- Gelan egindako ariketa guztiak koadernoan izatea.
- Ariketak ondo eta zuzenduta izatea.
- Ordenatuta eta garbi izatea.
- Adostutako epean entregatzea.

Jarrera baloratzean: Eguneroko jarrera irakasleak apuntatuko du positiboak eta negatiboak jarritz

- Adi egotea ikaskideak irakurtzen ari direnean, iritziak ematean eta errespetuz tratatzea.
- Errespetoa.
- Gelan partehartzea.
- Ondo portatzea, parteak ez izatea, faltak ez izatea...

- **EZ GENITUZKE AZTERKETARIK EGINGO.**

- **NOTA JARTZEKO HURRENGO ATALAK KONTUTAN IZANGO NITUZKE:**

1. **LAN PERTSONALA: KOADERNOAN EGINDAKO ARIKETAK, GOGOETA PERTSONALAK... %45**



2. **TALDEKO LANAK:** taldeka lan bat egin eta klasearen aurrean azaldu.
%25
(Ebaluaketaren batean, taldeko lanik egingo ez bagenu, lan pertsonalak % 70a balio izango luke?).
3. **KLASEKO JARRERA:** asistentzia, partehartzea, adi egotea, interesa, errespetoa, puntualitatea.
%30

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekuperazio-sistema...]

ANIZTASUN NEURRIAK

Ikasle bereziren bat klasean baldin badugu: heziketa behar bereziak dituen, minusbaliotasun fisiko edo psikiko duena edo hizkuntz berezia behar duena....Ikastetxearen Aniztasun Atentzio Planean datorrena jarraituko da.

~Ikasgai honetan egingo dena beti Zentruaren Orientazio Sailarekin koordinatuko da eta adituen esanetara (Terapeutika Pedagogia ematen dutenak) jokatuko da. Ikasle desberdinak dituzten interes desberdinak, metodologi pluralen bidez erantzungo da, ikasle bakoitzak bere ikasketa egoeraren arabera eraman dezan.

Programazioak izango ditu alderdi batzuk heziketa prozesuan indibidualizazioa kontutan hartzeko.

Horretarako hurrengo neurriak hartuko dira:

- a. Edukinen artean, oinarrizkoak zeintzuk diren bereiztu eta zeintzuk osagarriak diren, kasu bakoitzean aproposena aplikatzeko.
- b. Edukin bakoitzarentzat ariketa desberdinak proposatu.
- c. Metodologi desberdinak erabili.
- d. Material didaktiko desberdinak erabili, zailtasun neurri desberdinekin.
- e. Interakzioa lortzeko lan talde desberdinak sortu: talde malguak eta erritmo desberdinekin. Lan taldeak ez dira beti berdinak izango, lanaren arabera modu desberdinez osatuko dira.
- f. Ebaluazio erizpide bakoitzeko neurri desberdinak markatu.



--

OHARRAK